



Eman hegoak euskarari



Banpiroak

Nork bere banpiroa darama, mozorroan ez bada, barnean ongi gordea

FELIPE JUARISTI



Harrietek, Shelley poeta-
ren emazteak, lagun
bati idatzitako gutun
batean irakurtzen da: «Behin
maitatu nuen gizona hil da.
Orain banpiro bat da». 1814ko
testua da. Oraindik ez da
banpiroei buruz ezer idatzi
literaturaren arloan. Baina gi-
roan dago, ezin uka.

Banpiroei buruz hitz egitea
gizatasunari buruz hitz egitea
da. Nork bere banpiroa dara-
ma, mozorroan ez bada, bar-
nean ongi gordea, desiraren to-
lesturen artean bil-bil egina.
Gure beste hori da; guk bera
erakutsi nahi ez, eta, baimenik
gabe, bere burua erakusten du:
gandor-tentea halakoa. Gure
erdia da, edo gu gara haren

beste erdia, ez jakin. Gutaz
ahantzi eta bere bideari jarrai-
tzen dio, bere ekintzen ondo-
rioz eta erantzukizunez batere
arduratzeko. Bizitzaren alde
iluna da, ilargiaren aurpegia
bezain ezezaguna. Literaturari
arnasa berria eman dio horrek;
psikoanalisiak bere urpekariak
bidali ditu itsaso kabugabe ho-
rren hondoraino iristeko, eta
han zer suma ibiltzeko. Ez dute
beti perla ederrik ekarri buelta-
koan. Badira salbuespenak:
‘Ulises’, esaterako. Erraz nahas-
ten ditugu barnekoa eta kanpo-
koa, nahasten ditugun bezala
publikoa eta pribatua. Barne
eta kanpo, norberaren eremuak
dira; publikoa, besteena izan
daiteke; pribatua, guk nahi du-

gun neurrian.

Aspaldi honetan, literatura-
ren deseraikitze-prozesuan
murgildurik gaudelarik, non
estetika berriak estetika zaha-
rrak estali nahian ari diren, li-
teratura idatziaren kritikak lite-
ratura idazten duten idazleena
ordezkatu du. Ez dira, jada, lite-
raturaren izenean idatzitako la-
nak kritikatzeko, goratzeko edo
ezeztatzeko bada ere; idazleak
beraiek dira kritikagari eta,
askotan gaitzesgarri, pribatuan
gorde nahi diren, edo nahi ez
diren, kontuak publiko egiten
direnean. Izan daiteke ideolo-
gia, sexu edo genero-kontua,
besteekiko jarrera etikoa,
anekdota hutsa, eta dena era-
biltzen da idazlea bera zapuz-

teko, edo goratzeko, auskalo.
Jakina, eroritako tenpluaren
gainean beste bat altxatzen da,
ideologia hegemonikoarekin
bat datorrena. Norbaitek
pentsa lezake beti izan dela ho-
rrela, literaturan dauden borro-
kak beste borroka batzuen isla
izan direla. Agian, bai. Dena
dela, iruditzen zait idazlearen
pribatutasuna gauza bat dela
eta publikotasuna, argitaratuta-
ko lanak, idazleak munduaren
aurrean duen jarrera eta egoe-
ra, esaterako, bestea. Barneko
mundua, hain eraginkorra,
kanpoko munduarekin bat etor-
daiteke, edo ez, baina biak ala
biak dira sortzen den arte-lana-
ren legamia. Idaztea izan dai-
teke izateko modu bat, edo ez.
Begiratu behar zertan lotzen di-
ren barneko eta kanpoko mun-
dua.

Idazle baten biografia ira-
kurtzen dudanean, berdin da
nor, idazle horren lanak ira-
kurtzeko gogo kentzen zait
gehienetan. Ez baita inor bere
bizitza pribatuan publikoan
den bezalako; idazle bat ez da
bere harremanetan bere
pertsoneiak diren bezain esku-
zabal eta onbera, edo... Idazle
batek idazten duenean ematen
du bere maila, batzuetan gore-
na. Pertsona gisa, bere on-gai-
tzak, bere zuzen-okerrak ditu.
Ez gara perfektuak. Ez gara ez
ainguru ez demonio. Kaskarrak
gara, normalean, kanpotik eta
kanpora begiratuta; bereziak,
gure baitako gela itxian, inoren
begiradatik urrun. Norberaren
barneko paisaiak dauka ga-
rrantzia, baina irakurtzen jakin
behar.

Banpiro edo munstro, gu ez
garen edonor arbuizatzeko hi-
tzak dira. Azkenaldiko moder-
nitate horrek ahantzia edo gal-
dua zegoen munduaren bana-
keta sinbolikoa ekarri du. Alde
batetik, gu; bestetik, gainera-
koak, munstroak, banpiroak,
izaki gaiztoak. Alde batetik, la-
gunak; bestetik, etsaiak. Agian,
gure ispilu.

«Banpiro edo
munstro, gu ez garen
edonor arbuizatzeko
hitzak dira»

Mundu osoko kondairak

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA
VÁZQUEZ

Antton Irusta ipuin kontalaria eta idazlea
izateaz gain, filologoa eta irakaslea ere
bada. 90eko hamarkadaren bukaeran
hasi zen hainbat kulturatako ipuinak ida-
tziz jasotzen, eta harrezkerotik, herri
ipuinak haur literaturara hurbiltzeko aha-
leginean, hamaika dira argita-
ratu dituen liburuak.

‘Koloretako ipuinak’ liburuan,
Irustak mundu osoko hamabost
kontakizun bildu ditu. Horiei
esker, irakurleok bost kontinen-
teen zehar ez ezik, denboran
zehar ere bidaiatzeko aukera
dugu; izan ere, antzinako ipui-
nak dira guztiak. Euskal Herriari
hasi, Europatik igaro (Frantzia,
Italia, Grezia, Alemania), eta,
orrialdeak pasatu ahala, urru-
tiago dauden herrietara hurbil-
duko gara, hala nola, Nigeria,
Egipto, Japonia, Thailandia, Txi-



**KOLORETAKO
IPUINAK**
A. IRUSTA/
E. MORENTE
Ibaizabal. 72 or.
13,50 euro

na, India, Venezuela eta Australia. Kon-
daira gehienek molde berdintsua dute,
fenomeno batzuen jatorria modu irudi-
mentsuan azaltzen dute. Batzuek natu-
rako alderdiren bat, adibidez: haizearen
sorrera, udazkenaren etorrera, eguzkia
nola irteten den edo zergatik dagoen itsa-
soa gazi. Beste batzuek, berriz, guretzat
ezagunak diren animalien berezko ezau-
garriak, esaterako, trikuak zergatik di-
tuzten arantzak, dotokek zergatik duten
oskola, txoriek zergatik dituzten kolore
biziak edota hontzek zergatik oihukatzen
duten.

Horien trama oso arin gara-
tzen da, batez ere pertsonaien
ekintzak eta elkarrizketak kon-
tatzen direlako, deskribapen
askorik gabe. Hori dela eta, oso
ipuin laburrak dira, hiru edo
lau orrialdekoak. Hau da, luze-
ra egokia era autonomoan ira-
kurtzen ikasi berri duten haur-
rentzat, baita ozen irakurtzeko
tartetxo bat duten helduentzat
ere. Ez dezagun ahaztu herri
ipuinak ahozko literatura tra-
dizionaletik datozela, eta, be-
raz, oso aproposak direla ozen
irakurtzeko.

LABUR LABUR

Sormen Beka: ume eta familiei zuzendutako lanak

NAHIKARI CAYADO

Sortzaile berriei bultzada ekonomiko
ematen dien sormen beka bueltan da sei-
garren urtez jarraian. Oraingoan, Gere-
diaga Elkartek -Durangoko Azokako an-
tolatzaileak- eta Durangoko Udalak ume
eta familiei zuzendutako lanak sarituko
dituzte, dauden formatuan daudelarik.
Hau da, lana ikuskizun bat izan daiteke,
hala nola zirkua, antzerkia zein ipuin kon-
taketa; edota euskarri bat, mahai jolasa,
musika, bideoa..., eta baita horien arteko na-
hasketa bat ere.

«Lanak aurkezteko epea heldu da eta, beti
bezala, aurtengo Azokan emango dugu ira-
bazlearen izena ezagutzera. Saritutako
proposamen hori, 2024an, Saguanbara
guneko eskaintzetako bat izatea da gure
helburua», adierazi zuen ostegun hone-
tan egindako prentsa agerraldian Nerea
Mujikak, elkarteko presidentea denak. La-



Sormen Bekaren aurkezpena.

nak aurkezteko epea irailaren 21era arte
egongo da zabalik. Mujikarekin batera Ima Garrastatxu izan
zen, udalerriko alkatea dena. Azpimarra-
tu zuenez, «Durangoko Azoka kulturaren
leihoa izaten da abenduan, eta beka honi
esker leiho hori izaten jarraitu nahi dugu
urte osoan».

Proposamenak posta elektronikoz bi-
dali beharko dira gerediaga@durangoko-
zoka.eus helbidera.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 19 kamera

Jon Arretxe. Erein

2 Animalia domestikoak

Esti Martinez. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal. Susa

EZ FIKZIOA

1 Luis Bonaparteren brumairearen...

Karl Marx. Igela

2 Zaintzaren hariak

Felix Arrieta. Elkar

3 Irunberri 1990

Pako Aristi. Erein

4 Gerrak ez du emakume aurpegiarik

Svetlana Aleksievitx. Elkar